



eraberean

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA

TRATU-BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA Oinarrizko gida

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



eraberean

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA

TRATU-BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA Oinarrizko gida

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia:

1.a, 2020ko iraila

Ale-kopurua:

500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza.
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

Itzulpena:

IZO. IVAPeko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala

Inprimaketa:

xxxxxxx

L.G.:

xxxxx

AURKIBIDEA

1. SARRERA/ 5

2. OZTOPOAK DISKRIMINAZIOAREN ETA GORROTO-DELITUEN
KONTRAKO BORROKAN/ 7

3. KONTZEPTUAK ARGITUZ/ 10

4. ARAU-ESPARRUAK/ 15


5. ZER DA ERABEREAN?/ 16

6. DISKRIMAZIO-EREMUAK ETA/EDO GORROTO-DELITUAK/ 20

7. OINARRIZKO ORIENTABIDEAK/ 22

8. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BALIABIDE
INTERESGARRIAK/ 26

9. ERANSKINA/ 30





Ezin dugu ahaztu, eta ez dugu ahaztu behar, pertsona batzuk diskriminatuak edo delituzko jokabideen biktimak izaten direla, besteak beste, generoa, etnia, orientazio edo identitate sexuala, nazio-jatorria, desgaitasuna edo gizarte bazterketako egoera direla-eta. Errealitate hori pertsonen eta kolektiboen artean aspaldi orokortu den desberdintasunean errotzen da.

Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak ordena juridikoetan –konstituzionalean zein nazioartekoan– nagusitu diren heinean, ikusgarriago bilakatu dira botere publikoentzat zein herritarrentzat, zeinek azkenean heldu baitira pentsatzera jokabide diskriminazionalak ezin onartuzkoak direla, eta, horrez gain, bateraezinak direla aipatutako eskubideekin eta oinarrizko askatasunekin.

Horrenbestez, aukera berdintasuna gure zuzenbideko estatu demokratikoaren funtsezko elementua da, bereziki Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Printzipioa. Izan ere, printzipio saihestezina da Justiziaren eta oinarrizko eskubideen ikuspuntutik, eta, gainera, hura behar bezala antolatuz gero, kohesio sozialean eta garapen ekonomiko iraunkorrean ere eragiten du, eta jarduera publikoaren zilegitasuna areagotzen du.

Gizartearen konplexutasuna dela-eta, printzipio hori zeharka integratzen duten politika publikoak behar dira, erabaki publikoen efikazia, kalitatea, gardentasuna, ekitatea eta ardura indartze aldera. Halaxe jasotzen du Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua, ezartzen baitu botere publikoei dagokiela baldintza zehatzak sustatzea, gizabanakoen eta haiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen. Horrenbestez, argi dago helburu hori lortzeko administrazio publikoek bete behar duten eginkizuna, eta horixe izan da, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak bere egin duen konpromisoa, **Eraberean** Tratu-berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Sarea sortzean.

Hala, bada, **Eraberean** Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak eta hirugarren sektoreko hainbat erakundek osatzen duten sarea da eta helburu hau du: Euskadiko politika publikoetan eta gizarte zibilean Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Printzipioa aplikatu daitezen sustatzea, maila instituzionalean zein sozialean. Hain zuzen ere,

printzipio hori eraginkor bihurtze aldera, diskurtso eta praktika inklusiboak sustatu nahi ditu, eta, horrez gain, eragileak eta baliabideak aktibatu. Kontua da, finean, tinko egitea lidergo partekatuaren alde, bi planteamendu hauek orekatu nahian: batetik, prebenzioa, pedagogia eta sentsibilizazioa egitekoa, eta, bestetik, planteamendu operatibo bat, pertsona zehatz batzuei laguntzera zuzendutakoa.

Beren eskumen-arloa dela-eta, beste pertsona batzuek nozitutako gertaera diskriminatzaileekin edota gorroto-delituekin lotutako eskaerak jaso ditzaketen pertsonen zuzentzen zaie bereziki gida hau, betiere funtsezkotzat jotzen dugun helburu bat lortzeko lanabes bat izateko asmoz: informazioa ematea eta sinergiak sortzea Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Printzipioa aplikatzean behar den osagarritasuna ahalbidetzeko. Izan ere, ahaleginak batzea dugu modu bakarra, printzipio hori gauzatu dadin lortzeko.



2

OZTOPOAK DISKRIMINAZIOAREN ETA GORROTO-DELITUEN AURKAKO BORROKAN

Gertaera diskriminatzaileak edota pertsonetikiko ezinikusi irrazionala eta gorrotoa direla-eta egiten diren delituak ikertzeko eta epaitzeko oztopo ugari dago. Eta hori oso kontu garrantzitsua da; izan ere, oztopo horiek behar bezala ezagutu eta bideratu ezean, oinarrizko eskubideak babesteko sistema interferituta geratuko da, ezinbestez. Ondoren, horren inguruan izaten diren zailtasun nagusiak aipatuko ditugu:

DATURIK FALTA

Salatutako gertaerei buruzko daturik falta arazo nagusietariko bat da, arazoaren garrantzi kuantitatiboa eta kualitatiboa ezagutu ahal izateko, datu estatistikoak jasotzen dituen argitalpen gutxi baitago.

“Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los Delitos de Odio en España” izeneko txostena da Espainiako Estatuko gorroto-delituen erregistro ofizial bakarra, Barne Ministerioak 2013tik argitaratzen duena.¹ Txosten horretan, autonomia-erkidegoetako polizia-kidego guztien polizia-atestatuak jasotzen dira. Gertaera ezagunen inguruko datuak, eremuaren eta testuinguruaren arabera banatzen dira:

Arrazakeria eta xenofobia	Erljio-sinesmenak edo praktikak
Ideologia	Diskriminazioa, sexua eta generoa direla medio
Desgaitasuna	Aporofobia
Sexu-orientazioa edo sexu-identitatea	Antisemitismoa

¹ Txostenak eskuragarri daude web honetan:
<http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/delitos-de-odio/estadisticas>

EAEari dagokionez, “Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko txostena”² eskaintzen du 2017tik Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin batera. Txosten horietan jasotzen dira gorroto-delitu eta gorroto-diskurtsoen inguruko datuak, 2016. urtetik aurrera, aipatutako eremu eta testuinguruen arabera sailkatuta.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu, orobat, gertaera asko ez direla salatzen, eta, horrenbestez, ez dugula izaten haien berri.

Halaxe da: gertaera diskriminatzaileekin edota gorroto-delituekin zerikusia duten ageriko salaketak oso gutxi dira; portzentaje txiki bat baino ez, benetan gertatzen direnen aldean. Horrenbestez, izozmendi batekin gertatzen den bezala, arazoren parte txiki bat baino ez dugu ezagutzen. Hori zergatik gertatzen den kuantifikatu eta ulertu ahal izateko, ikusi atxikitako txostenak, LGTBI kolektiboari³ eta ijitoei buruzkoak.⁴

Laburbilduta: zenbait arrazoik eragiten dute egoera horretan, alegia:

- **Ez ezagutzea behar bezala dauden eskubideak**, edo ez jakitea nola eta non salatu delitu horiek. Alde horretatik, administrazio publikoek pedagogia-lana egiten ahalegin beharko lukete.
- **Normalizazioa**: kasu askotan, diskriminazioa biktimen eguneroko bizitzaren parte bat da, eta beren bizitzan zerbait naturaltzat jotzen dute, “normalizatzeraz” eta barneratzeraz heltzeraino ere.
- Erakundeekiko **mesfidantza** handia nagusitzen da, gertaera diskriminatzailea eraginkortasunez ebazten lagunduko ez dutelakoan. Zehazki, ijito-herriaren kasuan, erakundeek historikoki egin dioten jazarpenarekin lotuta dago mesfidantza hori.
- Kasu askotan, salaketa jartzeak **bilatzen ez zituen ondorioak** ekar diezazkioke diskriminatutako pertsonari. Zehazki, LGTBI kolektiboarekin hau gertatzen da: laguntza eskatuz gero, norberaren orientazio edo identitate sexuala ikustarazten da, eta jende guztia ez dago prestatua egoera horri aurre egiteko. Gauza bera gertatzen da, orobat, egoera irregularrean dauden immigrante askorekin: uko egiten diete beren

² Informazioa eskuragarri dago web honetan: <http://katedraddhh.eus/> (Txostenak atalean)

³ Estudio 2013 sobre discriminación por orientación sexual y/o identidad de género en España - FELGTB/COGAM

⁴ Discriminación y Comunidad Gitana. Informe 2016 - Fundación Secretariado Gitano

eskubideei gobernuak herrialdetik botatzeko espedientea irekiko ote dieten beldur.

GERTAEREN DESKRIBAPENA

Beste arazo bat izan ohi dugu: gertaerak ikertzen edo epaitzen dituztenek **garrantzia kentzen diete** gertaerori. Ez da jakiten benetan delitu-mota horren zenbat biktima dagoen, eta, horrekin batera, ez dago gaiari buruz behar besteko prestakuntzarik. Horren guztiaren ondorioz, ez da ezagutzen gaiaren larritasuna, eta horrek negatiboki eragiten du gertaera antzeman eta behar bezala bideratze aldera. Ez da arraroa, horrenbestez, arazoak antzematea bai biktimei ematen zaien arretan, baita informazioan eta orientazioan ere. Atestatu zehaztu gabeak, kontsiderazio okerrak, desbideraketa desegokiak..., horra hor ondorioetako batzuk.

Funtsezkoa da, beraz, sentsibiltate berri bat sortzea maila horretan, eta gorroto-delituak antzemateko prestakuntza ematea segurtasun publikoko kidegoei eta indarrei, bai eta operadore juridiko desberdinei ere (fiskaltzak, epaileak, abokatuen bidezko ordezkariak, eta abar). Izan ere, horrela, delituok egokiro epaitzeko tresnak izango ditugu, eta, horrez gain, salatzen diren gertaerei ez zaie garrantzirik kenduko eta ez dira arau-hauste arintzat joko.

Bereziki garrantzitsua da, horrenbestez, administrazio publikoek bideak eta mekanismoak erraztea, Konstituzioak ezarri bezala, herritarrek beren eskubideak libreki gauzatzeko aurkitzen dituen oztopoak kentzeko. Gai hau lantzen duten erakundeek eta organizazioek errealitatearekin bat datozen datuak izatearen garrantzia azpimarratzen dute, jokabide diskriminatzaileak erakusten dituen erradiografia lortzeko, eta, horrenbestez, haien kontra benetako politika eraginkorra diseinatzeko.



3

KONTZEPTUAK ARGITUZ

Intolerantzia funtsezko elementua da aztertu behar ditugun gertaerak ulertzeko. Desberdinak diren pertsonetikiko aurreiritzietatik dator intolerantzia hori, eta era askotariko arrazoitan oinarritzen denez (sexua, etnia, jatorria, sexu-orientazioa edo identitatea...), zenbait kolektiboren kontrako gorrotoa elikatzen duten, eta, horrenbestez, oinarrizko eskubideak bortxatzen dituzten jarrera eta jokabide aktibo zein pasiboen bidez adierazten da. Ondoren azaltzen dugu nola agertu ohi den.

GORROTO-DISKURTSOA

Adierazpen bat da, hurkoari eta haren duintasunari eta oinarrizko eskubideei kalte egitea helburu duena, eta edozein motatako intolerantziaren adierazpen bat sustatu nahi duena. Zigor Kodearen 510. artikuluan dago araututa, non jokabide hauek zigortzen baitira: 1.– Bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria eragitea, zuzenean edo zeharka, talde baten edo haren parte baten aurka edo pertsona jakin baten aurka, talde horretako partaide izateagatik. Gorrotoa edo biolentzia sustatzen, bultzatzen edo pizten duen materiala produzitzea edo zabaltzea. Genozidio-delituak edo erlijio, etnia, jatorri, sexu, desgaitasun, gaixotasun edo sexu-orientazio jakin bat dela-medio taldeen edo pertsonen kontra egindako delituak ukatzea jendaurrean, edo delitu horien goratarrea egitea.

GORROTO-DELITUA

Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Antolakundearen barruan (ESLA), 2003an hartutako definizioaren arabera, hau da gorroto-delitua: **“Zigor-arloko edozein arau-hauste, pertsonen edo jabetzen aurkako arau-hausteak barne, zeinean arau-haustearen biktima, lokala edo xedea aukeratzen baita talde bateko partaide, laguntzaile edo afiliatua izateagatik edo harekiko lotura edo sinpatia izateagatik, edo hala dela susmatzeagatik”**. Halakoetan, taldea definitzen da hura osatzen duten pertsonak dituzten ezaugarri komunak direla-medio, hala nola haien nazio- edo etnia-jatorria, sexu-orientazioa edo identitatea, hizkuntza, erlijioa, desgaitasuna, gizarte-bazterketa edo antzeko beste faktore batzuk.

Garrantzitsua da nabarmentzea edozein izan daitekeela gorroto-delitu baten biktima, alde batera utzita jarrera diskriminatzailearen jomuga den taldeko partaide den ala ez; izan ere, jarrera hori dakarren aurreiritzia errealitatean oinarritu daiteke edo susmo hutsetan. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak garrantzi handia ematen die aurreiritzietan oinarritutako motibazioei; izan ere, mezu bereziki umiliagarria zabaltzen da, baldin eta pertsonak direnagatik edo direna ematen dutenagatik bihurtzen badira biktimak: pertsonaren beraren espezifikotasuna ukatzen da, eta, horrenbestez, haren nortasuna, esperientziak eta gaitasun propioak ukatzen dira.

Amaitzeko, azpimarratu behar da “gorroto-delituak” kontzeptuak bere gain hartzen duela Zigor Kodean tipifikatutako arau-hauste mota pilo bat (ikus 1. eranskina), eta guztietan gorrotoa izaten dela delituen kausa. Aipatu behar da, beste alde batetik, Barne Ministerioak maila horretako administrazioko arau-hausteak ere sartzen dituela.

DISKRIMINAZIOA

Nazio Batuen Giza Eskubideen Komitearen 18 zenbakidun Ohar Orokorak diskriminazio terminoa argitzen du. Definizio hau egiten du nazioarteko esparrutik:

“[...] giza eskubideen eta pertsonen oinarritzko askatasunen aitortza, gozamena edo erabilera baliogabetzea edo gutxitzea helburu edo emaitza duen bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasun oro, zeinak arrazoi jakin batzuk oinarri baititu, hala nola arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste edozein motatako iritzia, nazio-jatorria, maila ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein kondizio sozial.”

Horrenbestez, uler dezakegu diskriminazioa hau dela: taldeen edo pertsonen arteko bereizketak egitea pertsonak edo kolektiboek berezko dituzten ezaugarrietan oinarrituz. Eta haren ondorioa begi-bistakoa da: pertsona batzuei beste pertsona batzuek badituzten zenbait eskubide eta aukera kentzen zaizkie.

Europako esparruan, diskriminazioaren definizio juridikoa diskriminazioaren aurkako bi direktiba hauetan aurkitzen dugu: Europako Batasunak 2000n onartutako arraza berdintasunari buruzkoan (2000/43/EE Direktiba) eta enpleguan tratu berbera jasotzekoari buruzkoan (2000/78/EE Direktiba). Zerga-, administrazio-eta lan-arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bidez txertatu ziren direktiba horiek Espainiako Estatuaren barne-zuzenbidean.

ZUZENKO DISKRIMINAZIOA

Egoera hauetan dago zuzeneko diskriminazioa: pertsona bati, haren ezaugarriak direla-eta (etnia, erlijioa, ideiak, desgaitasuna, adina, orientazio sexuala...), beste pertsona bati baino txarrago tratatzen zaionean.

Adibidez: magrebtar bati ez uztea taberna batean sartzen, hain zuzen ere, “magrebtar-itxura izateagatik”.

ZEHARKAKO DISKRIMINAZIOA

Zeharkako diskriminazioa gertatzen da, berriz, lege edo kontratu baten xedapen batek, banako itun batek edo alde bakarreko erabaki batek, itxuraz neutroak izan arren, berekin ekar badiezaioke desabantaila berezi bat pertsona bati beste batzuen aldean, haren arraza- edo etnia-jatorriagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu orientazioagatik. Hori horrela da, dena delako xedapenak, itunak edo erabakiak ez badio objektiboki erantzuten xede zilegi bati, eta xede hori lortzeko bitartekoak egokiak eta beharrezkoak ez badira.

Adibidez: lan-eskaintza baten baldintzetan eskainitako lan hori egiteko beharrezkoak ez diren ezaugarri pertsonalak (nazionalitatea, adina...) edo prestakuntza sartzea.

JAZARPEN DISKRIMINATZAILEA

Inoren duintasunari erasotzea edo kikilduta, areriotzat joa, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea helburu edo ondorio duen jokabide oro (lagun bati zein talde bati egin dakieke jazarpena).

Adibidez: auzokide-talde batek “Ijitoak kanpora” lelopean manifestazioa egiten duenean.

DISKRIMINATZEKO AGINDUA

Nolanahi ere, diskriminaziora eragitea edo diskriminatzeko agintzea edo jarraibidea ematea.

Adibidez: poliziak “atzerritar-itxura” dutenei dokumentazioa eskatzeko jarraibidea duenean.

DISKRIMINAZIOA, KONPAINIA DELA ETA

Inor beste pertsona batekin duen harremanarengatik diskriminatzen denean (lagun bat zein talde bat diskriminatu daiteke).

Adibidez: denda bateko segurtasun-guarda ijitoa ez den pertsona baten atzean dabilenean, hura ijito batekin batera dabilelako.

DISKRIMINAZIOA, USTE OKER BAT DELA MEDIO

Inor diskriminatzen denean hari buruzko iritzi okerra izateagatik (lagun bat zein talde bat diskriminatu daiteke).

Adibidez: mutil bat gay delakoan ez dutenean lanpostu bat betetzeko hartzen.

DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA

Inor diskriminatzen denean, zenbait arrazoi batera direla-medio edo zenbait arrazoik elkarri eragiten diotelako. Kontua ez da diskriminazio-arrazoi guztiak batzen direla, baizik eta arrazoi horiek elkarri eragiten diotela pertsona edo talde sozial bakoitzari; arrazoi horiek gizartean dauden botere-egitura desberdinak islatzen dituzte. Hori dela-eta, azken urteotan termino berri bat sortu da, pertsona batek nozitu ditzakeen diskriminazio desberdinen aldi baterako elkarreragintasunaren azterketa-prozesua deskribatzeko: interseksionalitatea.

Adibidez: Marokoko mutil homosexual gaztea, bere jatorriagatiko tratu diskriminatzailea jasateaz gain, gay izateagatik bere herrikide baten mehatxua jasaten duenean.

Ezin da esan, zehazki, genero-identitateagatiko diskriminazioa eta jatorriagatiko diskriminazioa batera gertatzen direnik, baina bai elkar elikatzen dutela, eta bestela gertatuko ez litzatekeen egoera diskriminatzaile bat sortzen dute.

Diskriminatzeko modu hori detektatzeko zailenatariko bat da; izan ere, arrazoi desberdin asko direla-eta diskriminatuak izan gaitzkeen arren (emakumea eta immigrantea izateagatik, immigrantea eta desgaitasunen bat izateagatik, beltza eta homosexuala izateagatik, eta abar), diskriminazioa anizkoitza dela ulertzeko, egiaztatu behar da gutxienez bi arrazoi direla-medio gertatu dela.



4

ARAU-ESPARRUAK

Zenbait legegintza-esparruk lantzen dute diskriminazioa eta tratu-berdintasuna, Estatuan zein Europan. Ondoren jasotzen ditugu **Eraberean** sarearen eskumen-arloei dagozkion batzuk.

ARRAZA- EDO ETNIA-JATORRIA	SEXU-ORIENTAZIOA/GENERO- IDENTITATEA
<ul style="list-style-type: none">• 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta tolerantziarik ezaren aurkakoa.• 62/2003 Legea, abenduaren 30ekoa, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloetako neurriei buruzkoa. II. Titulua. III. Kapituluak. Tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko neurriak.• Europako Zuzentarauak: 2000/43 (arraz- edo etnia-jatorriagatiko berdintasunaren ingurukoa) eta 2000/78 (lan eta enpleguaren esparruan tratu-berdintasunaren ingurukoa).	<ul style="list-style-type: none">• 3/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexuari buruzko aipameneren erregistro-zuzenketa arautzen duena.• 13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, ezkontzeko eskubidearen alorrean Kode Zibila aldatzen duena.• 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

5

ZER DA ERABEREAN?

Eraberean sare bat da, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak eta **immigrazio**-arloan, **herri ijitoaren** eta **LGTBI kolektiboen** sustapenean modu esanguratsuan lan egiten ari diren zenbait erakundek osatua. Guztiok misio bera dute: "...politika publikoetan eta Euskadiko gizarte zibilean, tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko printzipioaren presentzia sustatzea beste erakundeekin elkarlanean. Horretarako, diskurtsoak eta praktika inklusiboak bideratzen dituzte erakunde- eta gizarte-mailan, eta eragileak eta baliabideak eskuratzen dituzte..."

Horrenbestez, sareak erdigunean jartzen ditu transfobia, homofobia, arrazakeria eta xenofobia direla-eta egiten diren diskriminazioak edota gorroto-delituak (gai horiek guztiak ekimena sustatu duen sailaren eskumenekoak dira, alegia, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailarenak). Begibistakoa da beste diskriminazio-maila ugari daudela (matxismoa, dibertsitate funtzionala,...). Bada, haien aurrean **Eraberean** sareak planteatzen du etengabe koordinatzea maila horiek berariaz lantzen dituzten erakundeekin.

Hona **Eraberean** sarearen oinarrizko helburuak:

- Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko politika zehatzak bideratzea eta sustatzea, batez ere aipaturiko arrazoiak direla-eta sortu



eraberean

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA



ZURI LAGUNTZEKO GAUDE!

www.eraberean.net
info@eraberean.net

ELUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

diren kasuetan, eta politika sektorialetan tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa barneratzea.

- Informazio-, aholku- zein orientazio-tresnak pertsonen zerbitzura jartzea, haien eskubideak baliarazteko, urratzen ari direnean tratu diskriminatzailearen ondorioz.
- Baliabide eta tresna horiek antolatzea, beste motibo batzuk direla-eta (sexua, dibertsitate funtzionala, eta abar), eremu publikoan diharduten eta historikoki gizarte zibilaren erakundeek garatu dituzten beste batzuekin batera.

Eraberean sareak EAE osoan lan egiten du, eta eremu pribatuan jartzen du arreta bereziki, bi planteamendu hauek lotuz:

- Batetik, prebentziozko planteamendua: pedagogikoa, gizartea kontzientziaztekoa eta sentsibilizatzekoa, gizartea eta kultura eraldatzera bideratua, eta ezinbestez epe ertainera eta epe luzera begirakoa. Horretarako, sentsibilizatzeko programak eta ekintzak konbinatzen ditu: eragileen prestakuntza, zabalkunderako materialaren lanketa, gizarte erakundeei zein bestelako instituzioei zuzenduriko aholkularitza, eta abar.
- Bestetik, planteamendu eragilea du. Haren helburua da, hain zuzen, pertsona jakin batzuei lehenbailehen laguntzea egoera zehatzen aurrean, ekintza-ikastaro zehatzen bidez. Horretarako, sarea lurraldean zabaltzen da, egoera diskriminatzaileak antzeman eta kudeatzeko “antena” gisa lan egiten duten erakundeen bidez.

ERABEREAN OSATZEN DUTEN ELKARTEAK


Eraberean sarea zenbait elkartek osatuta dago; guztiek, azaldutako printzipioek bultzatuta, helburu baitute sexu-orientazioa, jatorria, etnia edo haien arteko konbinazioak direla-eta gertatzen den edozein diskriminazioren aurrean erantzuna ematea.

Hauek dira Eraberean osatzen duten elkarteak⁵:

	GIPUZKOA	BIZKAIA	ARABA
IMMIGRAZIOA	SOS Arrazakeria	CITE-CCOO	ZEHAR ERREFUXIATUEKIN GURUTZE GORRIA
IJITO-HERRIA	AGIFUGI	KALE DOR KAYIKO NEVIPEN AMUGE	
LGTBI KOLEKTIBOA	GEHITU	ERRESPETUZ ANITZAK BIZIGAY	ALDARTE

Aipatu den bezala, sareak bi jarduera-planteamendu orokor ditu: alde batetik, prebentiboa, pedagogikoa eta kontzientziario eta sentsibilizazio sozialekoa, eta, bestetik, ustezko gertaera diskriminatzaileen edo delituzko gertaeren aurrean zuzenean esku hartzekoa. Azken horri dagokionez, sarearen jarduera eskema honi jarraituz bideratzen da:

Sarearen jarduera, jakina, kasu bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera da:



⁵ Telefonoak eta helbideak hemen: Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide interesgarriak. Eraberean osatzen duten elkarteak

- ✓ **Egiaztatzea/Solaskidetzta:** ustez diskriminazioa egin duen pertsonarekin kontaktatzen da, hasierako informazioa objektibo bihurtze aldera.
- ✓ **Negoiazioa:** ustez diskriminazioa egin duen pertsonarekin hitz egiten da, haren jokabidean eragiteko eta/edo biktimari ordaina emateko akordio bat lortzeko.
- ✓ **Bitartekaritza:** komunikazio-prozesu bat da, bi aldeek beren arteko desadostasunak konpontzeko irtenbide bat lortzen saiatzea helburu duena.
- ✓ **Kexa:** gorabehera diskriminatzailea erakunde publikoaren edo pribatuaren aurrean agerian uztean datza, baina eragindako kaltea diruz ordaintzea lortzeko asmorik gabe. Kexatik funtsezko eskubideak urratu direla ondorioztatu daiteke, eta, orobat, ahalbidetu daiteke Ararteko moduko erakundeek iradokitzea edo gomendatzea edozein administrazio autonomikori egoera leuntzeko edo zuzentzeko neurriak hartzeko.
- ✓ **Erreklamazioak:** erakunde publikoari edo pribatuari gorabehera diskriminatzailea jakinaraztean datza, betiere helburu hauekin: eragindako kaltea ordaintzea eta kaltea jaso duten interesak lehengoratztea.
- ✓ **Salaketa** (ikusi hurrengo atala)



6

ZENBAIT ARLO, NON DISKRIMINATZEKO ETA/EDO GORROTO-DELITUAK EGITEKO JOERA BAITAGO

Logikoa da pentsatzea ekintza diskriminatzaileak hainbat arlotan gerta daitezkeela. Horietako batzuk zehazte aldera, **Eraberean** Sareak erregistratutako gertaerei buruzko informazioa bildu dugu. Izan ere, Eraberean Sareak bere urteroko jarduera-txostenetan⁶ jasotako datuen arabera, ekintza diskriminatzaileak, batez ere, eremu pribatuan gertatzen dira, eta oso portzentaje txikia eremu publikoan. Ehuneko zehatzak aldatu egiten dira urte batetik bestera baina erreferentzia moduan hurrengoa eman genezake: % 80tik gora, eremu pribatuan; % 20tik behera, eremu publikoan.

Litekeena da, hala ere, informazio horrek errealitatearen ikuspegi okerra eskaintzea, izan ere, Sarea osatzen duten elkarteek eremu pribatuan jarduten dute batez ere, eta neurri txikiagoan eremu publikoan, eta horrek baldintzatu egin dezake ezagutzen diren gertakarien tipologia.

Diskriminazioa gertatu den eremu zehatzari dagokionez, Eraberean sarearen jarduera-txostenetan gehien azaltzen direnak hauek dira:

⁶ <http://www.euskadi.eus/erabereansarea>

EREMU PRIBATUA	
EREMUA	EKINTZA DISKRIMINATZAILEA (ADIBIDEA)
ETXEBIZITZA-SARBIDEA	Etxebizitza-jabeek edo higiezin agentziek ijitoak edo immigranteak diskriminatzea etxebizitza eskuratzeko prozesuan.
BIDE PUBLIKOA	Jokabide LGTBIfobikoak edo arrazistak (irainak, eraso fisikoak) kale, auzo, garraiobide eta abarretan.
KOMUNIKAZIOA ETA INTERNET	Etnia-arrazoiak direla-eta, gorrotoa pizten duten informazioak eta iruzkinak.
ENPLEGUA	Abusua/ jazarpena/ mehatxuak/ irain arrazistak, xenofoboak edo LGTBIfobikoak lanean.
ZERBITZUAK-MERKATARITZAKO LOKALA	Diskriminazio-tratua ijitoei edo immigranteei supermerkatuetan.
ZERBITZUAK-AISIALDIKO LOKALA	LGTBI pertsonak edo ijitoak diskriminatzea edo arbuizatzea (adierazpen afektiboak) aisialdiko lokaletan.
EREMU PUBLIKOA	
EREMUA	EKINTZA DISKRIMINATZAILEA (ADIBIDEA)
HERRITARREN SEGURTASUNA	Pertsona transexualak diskriminatzea edo arbuizatzea, polizia-zerbitzuen jardueretan.
KOMUNIKAZIOA ETA INTERNET	Etnia-arrazoiak direla-eta, gorrotoa pizten duten informazioak eta iruzkinak komunikabide publikoetan.
EUSKAL OSASUN ZERBITZUA	Tratu iraingarria edo diskriminazio-tratua ijitoei edo LGTBi pertsoneri.

Bestalde, hauek dira urratu diren eskubide nagusiak: etxebizitza izateko eskubidea (immigrante edo ijitoei, batez ere), intimitate-eskubidea, osotasun fisikoa (LGTBI kolektiboari eta immigrantei, batez ere), lana, duintasuna, osasuna, babes judiziala eta osotasun morala.



7

OINARRIZKO ORIENTAZIOAK GERTAERA DISKRIMINATZAILEA EDOTA GORROTO-DELITU BATEN AURREAN

Ondoren azaltzen ditugu pertsona batzuentzat interesgarriak izan daitezkeen zenbait kontu, zehazkiago, beren eskumen-eremua dela-eta, beste pertsona batzuek nozitutako egoera diskriminatzaileekin edota gorroto-delituekin lotutako eskaerak jaso ditzaketentzat. Helburu nagusia da baliabideak ematea, harrera- eta aholkularitza-lan eraginkorra ahalbidetzeko.

BIKTIMEI BURUZ

Logikoa denez, pentsatu behar da diskriminazioak, eta gorroto-krimenek bereziki, berehalako eta epe luzeko ondorioak izan ditzaketela biktimengan. Harridura, inpotentzia, sumindura, amorrua, antsietatea, beldurra, depresioa... horra hor ondorio nagusietariko batzuk. Horregatik, maila horretan ezinbestekoa da laguntza- eta aholkularitza-lana egitea.

Lagundu behar zaie lasaitzen, beren eskubideak baliarazten motibatuzko eta beldurra galarazteko haren erabakiek izan ditzaketen ondorioen aurrean. Zama emozional handiko egoeretan, laguntza psikologiko profesionalizatua eskaintzen duten zerbitzu espezializatuetera bidali behar dira (Eraberean, dagokion epaitegiko Biktimari Laguntzeko Zerbitzua).

Aholkua eman behar zaie, dauzkaten eskubideei buruzko informazioa eta jardunbide errealisteki buruzko orientazioa eskainiz (dagozkien abantailak eta desabantailak).

INFORMAZIO-BILKETA

Ustez diskriminatzailea edo delituzkoa izan daitekeen gertaera zehaztasunez definitze aldera, eta hari egokiro ekite aldera, ondoren azaltzen dugun guztia funtsezkoa da:

- Informazio-bilketa al bait **sakonena** eta **objektiboena** izatea.
- **Zehaztasun** handiagoz jasotzea zer elementu hartuko diren oinarri sendotzat etorkizunean gertaera diskriminatzailea frogatzeko egingo diren jardueretan eta zer erlazio duten elementu horiek eraso jasoen pertsonak kategoriatan sozial jakin batekoa izatearekin. Elementu horien artean egongo dira, besteak beste, esamoldeak, erabilitako terminoak, egindako ekintzak...
- **Erasotzaileei** buruzko datuak lortzen saiatzea.
- Gertaeren **frogak** edo **lekukoak** dauden ikertzea.

Aukera hau kontuan hartu behar dugu: subjektiboki antzemandako gertaera diskriminatzaile guztiak objektiboki horrelakoxeak ez diren bezala, gerta liteke ere gertaera diskriminatzaile edo delituzko jakin batzuk lausotuta geratzea, baldin eta pertsona batzuek beren bizitzetan zerbait “naturalizat” jo eta barneratu egiten badituzte. Eta egoera berri horretan sentikortasuna eta aurretiko prestakuntza funtsezkoak izango dira gertaera horiek antzeman eta egokiro bideratze aldera.

ZENBAIT JARDUERA ZEHATZ

SALAKETA

Komeni da gogoratzea salaketa ez dela jarduteko bide bakarra, eta batzuetan ezta eraginkorrena ere. Kasuaren ezaugarri espezifikoak direla-eta, garrantzitsua da alde hauek kontuan hartzea:

- **Non jarri:** ondoren azaltzen diren edozein polizia-unitate edo unitate judizialean jar daiteke salaketa:
 - ✓ **Polizia-etxe** hurbilenean.
 - ✓ **Guardiako epaitegian.**
 - ✓ **Probintzia Fiskaltzan.**⁷
- **Dokumentazioa:** eraso egonez gero, garrantzitsua da dokumentazio horrekin batera dagokion **mediku-txostena** eranstea.

⁷ EAEko baliabide interesgarriak

- **Beste erakunde batzuetara bideratzea:** aholkularitza espezializatua izate aldera, komeni da gaien eskumena duten erakundeen laguntza eskatzea.
 - ✓ **Eraberean:** Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioen aurkako Sarea (hura osatzen duen edozein erakunderen bidez).
 - ✓ **Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak,** lurralde historiko-etakoak⁸.

ERASO FISIKOA

Eraso bortitza gertatu bada, garrantzitsua da kontu hauek kontuan hartzea:

- **Medikuaren txostena:** inportantea da gertuen dagoen larrialdi-etxera joatea, eta bertan dagokion mediku-laguntza jasotzeaz gain, zehazki azaltzea nondik datozen lesioak eta erasoaren ebidentzia fisikoak jasoaraztea. Kontu biek osatuko dute dagokion mediku-txostena, froga-ondorioetarako baliagarria izango dena.
- **Salaketa:** aurreko atalean deskribatutako jarraibideen arabera salatu beharko da eraso oro.
- **Lekukoak eta bestelako froga-elementuak:** ikertu behar da ea gertaeren lekukoak dauden eta lekuko hori identifikatu daitezkeen (izena, helbidea, telefonoa), gertaerez duten bertsioaz gain, hala badagokie, lekukotza-aitortza eman dezaten. Zonan zaintza- eta segurtasun-kamerak egotea da, aldi berean, gertaerak frogatzeko elementu inportante batel. Gertaera izan zen ordutegi tarteko grabazioak ez txikitzeko eskatu beharko da, idatziz eskatu ere.
- **Atestatua:** Polizia kidegoren batek esku hartu badu, garrantzitsua da hari dagokion atestatua eskatzea.
- **Beste erakunde batzuetara bideratzea:** aholkularitza espezializatua izate aldera, komeni da gaien eskumena duten erakunde batzuen laguntza eskatzea (ikus aurreko atala).

⁸ EAEko baliabide interesgarriak

MEHATXUAK

Mehatxu oro delitua da, eta, horrenbestez, salagarria da lehen azaldutako moduan. Zigor Kodearen 169. artikuluan dago tipifikatuta mehatxu-delitua; delitua edozein komunikabideren edo erreprodukzio-baliabide baten bidez zabalduz gero, zigorra larriagoa izaten da. Bereziki hartu behar da kontuan zeinek egin dituen mehatxuak eta mehatxuak egon direla frogatzea. Eraso fisikoekin gertatzen den bezala, zuzeneko lekukoak izatea edota frogaelementuak (idazkiak, irudiak, postak, Whatsapp-mezuak...) funtsezkoa da zigor-arloko prozesurako.

INTERNET ETA SARE SOZIALAK:

Azken garaiotan joera handia dago plataforma horien bidez gorroto-delituak egiteko. Gorroto-delitu gisa salatu behar dira Segurtasun Publikoko kidegoen zerbitzu espezializatuen bidez (Ertzaintza, Polizia Nazionala eta Guardia Zibila).

Behin zigor-arloko prozesua abian jarri ondoren, instrukzio-epaileari eskatu beharko zaio web-orrialdeak edo guneak kautelaz blokeatzeko.



DISKRIMINAZIO EDO GORROTO-DELITUREN
BATEN ARRASTORIK ANTZEMANEZ GERO

EZ IZAN ZALANTZARIK!

JO EZAZU ERABEREAN SARERA,
HAREN ERAKUNDE HURBILENAREN BIDEZ



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BALIABIDE INTERESGARRIAK

ERABEREAN OSATZEN DUTEN ELKARTEAK

1. AGIFUGI

Baratzategi 3, behea

20015 Donostia

Tel. 943 248 086

e-mail: asociacion@agifugi.org eraberean@agifugi.org

2. ALDARTE

Zapatari kalea 45

01001 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 257 077

e-mail: aldarte@aldarte.org

3. AMUGE:

Txotena kalea 13, lonja 3-4

48004 Bilbao

Tel. 946 038 557

e-mail: eraberean.amuge@gmail.com

4. ANITZAK:

Epaltza Alargunaren kalea 2, behea

48005 Bilbao

Tel. 613 021 193

e-mail: anitzakbilbao@gmail.com

5. BIZIGAY:

Erdikoetxe kalea, 1C solairuartera

48015 Bilbao

Tel. 605 724 839

e-mail: bizigay@gmail.com

6. CITE-CC.OO. BIZKAIA

Uribitarte kalea 4

48001 Bilbao

Tel. 94 425 12 16 / 94 424 34 24

e-mail: citebizkaia@ccoo.eus

7. GURUTZE GORRIA

Gaztelako Atea 52
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 222 222
e-mail: eraberean@cruzroja.es

8. ERRESPETUZ

Benidorm 1, solairuartea ezk.-eskuina
48015 Bilbao
Tel. 675 459 317 / 94 476 40 54
e-mail: errespetuz@gmail.com

9. GEHITU

Kolon Pasealekua 50
20002 Donostia
Tel. 943 468 516
e-mail: infasis@gehitu.org Info@gehitu.org

10. KALE DOR KAYIKO

Ondarroa kalea 18, lonja
48004 Bilbao
Tel. 94 459 80 02 / 661 283 759
e-mail: eraberean@kaledorkayiko.org

11. NEVIPEN

Gorte kalea 22, eskuineko lonja
48003 Bilbao
Tel. 946 526 989
e-mail: pisekalo@nevipen.org

12. SOS ARRAZAKERIA

Mandasko Dukearen Pasealekua, 36-38
20012 Donostia
Tel. 943 321 811
e-mail: sos.gipuzkoa@sosracismo.eu

13. ZEHAR Errefuxiatuekin

Aldabe 7
01012 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 266 805
e-mail: eraberean@zehar.org

BESTE BALIABIDE INTERESGARRI BATZUK

1. ARARTEKO

Askatasunaren hiribidea 26
20004 Donostia- Gipuzkoa
Tel. 943 42 08 88
e-mail: arartekoa@ararteko.eus

2. ARARTEKO

Albia eraikina
San Bizente kalea 8, 11
48001 Bilbao
Tel. 944 23 44 09
e-mail: arartekoa@ararteko.eus

3. ARARTEKO

Prado kalea 9
01005 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 13 51 18
e-mail: arartekoa@ararteko.eus

4. BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ)

Justizia jauregia
Gasteiz hiribidea 18
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 004 895 900 180 414 (doakoa)
www.justizia.net

5. BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ)

Justizia jauregia
Teresa de Calcuta plaza 1
20012 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 000 768 900 100 928 (doakoa)
www.justizia.net

6. BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ)

Justizia-jauregia
Ibáñez de Bilbao kalea 3-5
48001 Bilbao
Tel. 944 016 487 900 400 028 (doakoa)
www.justizia.net

7. BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ)

Justizia-jauregia
Bide Onera plaza z/g
48901 Barakaldo
Tel. 944 001 031 900 400 028 (doakoa)
www.justizia.net

8. GIPUZKOAKO PROBINTZIA FISKALTZA

Eva Alonso Lorenzo andrea
Teresa de Calcuta 1
20071 Donostia

9. BIZKAIKO PROBINTZIA FISKALTZA

Ana Laura Núñez Portillo andrea
Barroeta Aldamar 10
48001 Bilbao

10. ARABAKO PROBINTZIA FISKALTZA

María Vidal Beneyto andrea
Gasteiz hiribidea 18
01008 Vitoria-Gasteiz



9

1. ERANSKINA

ZIGOR KODEAK JASOTAKO DELITU-TIPOAK, “GORROTO-DELITUAK” KATEGORIAN SARTZEKO AUKERA DUTENAK.

ARTIKULUA	EDUKIA
22.4	Astungarri orokorra: delitua diskriminazio-arrazoiengatik egiten bada.
170.1	Mehatxu-deliturako tipo kualifikatua ezartzen du, mehatxuen helburua denerako pertsona talde bat beldurtzea talde horretako parte izateagatik.
173.1	Osotasun moralaren aurkako delitua.
174.1	Tortura-delitua.
314	Diskriminazioa enpleguan (publikoa edo pribatua izanda ere).
510 y 510bis	Gorrotoa edo biolentzia eragitea.
511	Diskriminazio-arrazoiak direla eta, zerbitzu publiko batekin lotutako prestazio bat ukatzea pertsona bati, pertsona horrek prestazio hori jasotzeko eskubidea duen arren.
512	Lanbide- edo enpresa-jarduerak gauzatzean prestazio bat ukatzea pertsona bati, diskriminazio-arrazoiak direla eta, pertsona horrek prestazio hori jasotzeko eskubidea duen arren.
515.4	Gorrotoa eta diskriminazioa bultzatzen duen heinean zilegi ez diren elkarten delitua.
522 a 526	Sentimendu erlijiosoen kontrako delituak.
607	Genozidio-delituak
607bis	Gizateriaren aurkako delituak